

Ezpalak

JON TORNER

Xabier Montoia irabazi du Euskadi Literatur Saria, euskarazko arloan, *Euskal hiria sutan* (Elkar) narrazio bildumari esker. Itzulpengintzako Euskadi Saria, berriz, Fernando Reyri eman diote, Antonio Tabucchi italiarraren *Sostiene Pereira* nobela euskararatzeagatik. *Pereirak dioenez* (Igela) izenburupean kaleratu zuen liburua.

Antzerkiola Imaginarioa konpainiaren lau obra hauen testuak kaleratu ditu Artezblai argitaletxeak bi liburutan: *8 olivetti poetiko*; *Mundopolski, erreboltaren ziaboga*; *Yuri Sam. Otoi-tza* eta *Au revoir triunfadoreak*.

Ordoñez Falcon argazkigintza fundazioak (COFF) DFoto Arte Garaikidea eta Bideoaren Nazioarteko Azoka antolatzeari utziko diola iragarri du. Azoka antolatu duen lau urte hauetan ekimena guztiz sendotuta geratu dela eta bere lana bete duela dio fundazioak. Hori dela eta, hura antolatzea beste erakunde baten lana izatea erabaki du.

Abigail Lazkoz, Juan Perez Agirregoi-koa eta Txuspo Poyoren artelanez osatutako erakusketa jarri dute ikusgai Gasteizko Artium museoan. Gure Artea sariketaren XIX. edizioa irabazi dute hiru artista horiek. 2008ko urtarrilaren 13a arte izango da zabalik erakusketa.



Moises Perez de Albeniz galeristak *Berrian*: «Astakiloa izango nintzateke konturatu ez banintz artistak mahai gainean jartzen ari direla gai politikoak, eta beste asko. Eta artistak esaten ari direna jaso besterik ezin dugu egin. Horrela esanda, erraza da, baina nik ez dakit zer egiten dudana abangoardia historikoetako artisten lanak erakusten. Ez dira nire belaunaldikoak. Nik zer erakutsi behar dut? Orain lan egiten ari diren lanak. Hori da nire konpromisoa. Artistak konpromiso bat dauka gizartearekin; nik ere bai: haiena erakutsi behar dut. Hau da nire mendea».

Josu Camarak 7K aldizkarian: «Niretzat antzerkia sormen alorrean kokatu behar da, gainontzeko arteak bezala (...) Une honetan Euskal Herrian eta kanpoko leku askotan ere antzerkia sormen aldetik ikusi beharrean ekoizpen ikus-

Francisco Ibañez eta TMEO omenduko dituzte Getxoko Komiki Azokan

Getxoko Komikiaren eta Mangaren VI. Azoka 2007ko azaroaren 23an, 24an eta 25ean egingo da. Bi gunetan banatuko dute: Areetako Geltoki enparantzako ohiko karpan komikiaren gunea egongo da, eta Erromoko Santa Eugenia enparantza mangari eskainitako gunea berria. Aurtengo edizioan Francisco Ibañez kataluniarra eta TMEO aldizkaria omenduko dituzte. Ibañezek 1957an ekin zion bere ibilbide profesionalari, Bruguera argitaletxean. Urtebete beranduago Mortadelo eta Filemon detektibe ezagunen lehenengo abenturak publikatu zituen *Pulgarcito* aldizka-



rian. Orduz geroztik, komiki ugari argitaratu ditu Ibañezek. Bestalde, Gasteizko TMEO aldizkari satirikoa ere omenduko dute Getxoko Komiki Azokan, aurtengo bete baitu bere 20. urteurrena. Informazio gehiago www.salondelcomicdegetxo.net web gunean.

45 lanek parte hartuko dute Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideo Bileran

AZAROAREN 19TIK 24RA egingo da Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideo Bileraren 30. edizioa. Parte hartuko duten 45 lanetatik 24 zuzendari amateurrek filmatu dituzte eta gainerakoak profesionalek. Ikusgarri aretoan eskainiko dituzte proiektzioak, egunean zortzi, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Amateurren mailako irabazleek 900 eta 600 euro arteko saria jasoko dute, eta profesionalen mailakoek 1.300 eta 900 euro artekoa. Lan guztiak euskaraz filmaturik daude. Luzeeneko ordu erdiko iraupena dute eta lehiaketaren oinarrietan jasotzen den bezala, argumetuaren hasiera eta bukaera modu garbian bereizten dituzte. Egitarau osoa www.bideobilera.com webgunean kontsulta dezakezue.

puntutik ikusten da. Kulturaren 'pornografia' sortzen da. Gauza bat errentagarria izatea nahi badugu, zenbat eta 'pornografiatik' hurbilago egon askoz ere errentagarriagoa izango da. Guk une honetan horretatik distantzia bat hartu nahi dugu. Badakigu horretatik bizi nahi dugula, baina baita sormenari garrantzia man nahi diogula ere».

Miren Iza Talsa taldeko kideak *Noticias de Gipuzkoan*, Grammy Latinoetako talde hasiberriaren sarirako jasotako izendapenaren harira: «Ez dakit zer gertatuko den (sariarekin). Oraingoan, denbora apur bat igaro ostean gauza guztiek izandako ondorioak baloratuko ditugu. Katxea pixka bat igotzeko eta musikariei modu duin batean ordaintzeko balio badu primeran, hemen mundu guztia bizi baita musikatik, musikariak izan ezik».